

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritza

Iragarkia, 2026ko irailaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkarirena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera proiektu honetarako: gaur egungo kogenerazioa «Coalsema» eguzki-parke eta bateria-biltegitarekin hibridatzea, Berantevillako (Araba) udalerrian

Ikusirik zer xedatzen duen 10. artikuluan martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak, eta, orobat, zer jasotzen duen 53.1 artikuluan abenduaren 26ko 24/2013 Legeak, Sektore Elektrikoarenak, jendaurrean jartzen da gaur egungo kogenerazioa «Coalsema» eguzki-parke eta bateria-biltegitarekin hibridatzeko proiektua.

- Espedientea: 01-GE-Y-2025-00049.
- Eskatzailea: Compañía Alavesa de Secado de Madera SA (IFK: A01236348).
- Eskaeraren gaia: aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena.
- Xedea: Energia elektrikoa ekoiztea teknologia fotovoltaiakoaren bidez eta energia hori auto-kontsumorako biltegitatzea, gaindikinekin.
- Proiektua: «Coalsema». Deskripzioa:
 - 715 Wp-ko 13.284 modulu.
 - 26 inbertsore fotovoltaiako, 320 kVA-koak 40ºan. Guztirako potentzia: 8.320 kVA.
 - Biltegitaketa: 1.629,4 kWh-ko 7 edukiontzi eta 28 PCS. Guztirako potentzia: 5.600 kW.
 - 2 transformazio-zentro, transformadore batekin parke fotovoltaiakorako (10.000 kVA) eta beste batekin baterietarako (7.000 kVA).
- Eraginpeko udalerriak: Berantevilla.
- Ebakuazio puntua: barne-sarea.
- Aurrekontua: 7.206.015,92 euro.

Proiektu honek eginga du ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua.

Espediente hau izapidetzea eta ebatzea Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako Lurralde Ordezkaritzari dagokio, hala xedatzen baitu 20. artikuluan abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuak, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak.

Xedapen hori betez, jendaurrean jartzen da aipatutako eskaera, interesdunek zein beste edozein herritarrek aukera izan dezaten proiektuaren dokumentazioa aztertzeko eta egoki deritzen alegazioak aurkezteko iragarki hau argitaratu eta 20 egun balioduneko epean, dela Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako Lurralde Ordezkaritzara joz

(Samaniego Kalea 2, Vitoria-Gasteiz) dela www.euskadi.eus web-orrialdean, zehazki Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuei buruzko Informazio Publikoa azpiatalean (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/energia-meategiak/hasiera/>).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 3a

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkaria
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE